

KONTROL MOZIOA

Astiñene zubia eta Egia lotzen dituen bidea dela eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko irailaren 16an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2024ko azaroan inauguratu zen Astiñeneko zubia. Zubia irekitzearekin batera aspaldiko arazoak agertu ziren berriro ere oinezko eta bizikletentzat.

Zubiaren diseinuak eta oinezko eta bizikletentzat markatutako bideek zalantzak sortu baitzituzten erabiltzaileen artean, oinezko eta bizikletek zein bide hartu ez zekitelako eta ibilbidea deserosoa zelako.

Oinezkoak Loiolatik datozenean, esaterako, berezko bidea errespetatu beharko balute, bi galtzada gurutzatu beharko lituzkete Egiantz joateko eta horrek deserosoa egiten du bidea eta ez oso intuitiboa. Hortaz, oinezkoek Egiantz joateko hartzen duten bidea bidegorria izan ohi da, eta egoera arriskutsuak suertatzen dira.

Bestalde, bizikletaz doazenek ere ez dute bidea oso garbi markatua, seinale bertikal bat jarri zen zubiaren hasieran Egiantzko norabidean, baina aurrerago, Egia kalearekin lotzen duen bidegorria amaitu gabe dago. Hori bakarrik ez, eta bide hau nahiko arriskutsua suertatzen da bizikletaz ere, autoetatik babesteko hesiak erorita edo kenduta daudelako, lurreko margoak borratuta daudelako eta bidegorria zaborrontzi batean bukatzen delako. Beraz, bizikletak galtzadara sartu beharra du. Horrez gain, bidegorriaren asfaltoa zuloz josia dago.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Eta azkenik, bizikletaz Egiatik Loiolarantz jaistean, bidegorrira sartzea arriskutsua da galtzada gurutzatu beharra dago eta. Ondorioz, bizikletak errepidetik joaten dira gehienbat.

Egoera horren guztiaren berri eman eta hori antolatzeko asmoari buruzko interpelazioa aurkeztu genion zinegotzi ordezkariari azken batzordeetan. Zinegotziak berak eta Udaleko Mugikortasun Sailak egoera horren berri zutela onartu zuen, bai eta eremua bere horretan aldatu beharra zegoela ere. Oraindik ere ez baita betetzen goranzko bidea soilik bizikletentzat izatea eta beheranzkoa, oinezkoentzat. Eremu horrek, gaur egun dagoen moduan, oinezko eta bizikletentzat egoera arriskutsuak sortzen dituela onartu zuen zinegotziak. Baina oraingoz ez zegoela ez proiekturik, ez aurrekonturik, ez eperik eremu horren berrantolaketa egiteko.

Hortaz, egoera horren jakitun izanik, egoera arriskutsu hori luza ez dadin eskatu nahi diogu Udal Gobernuari.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Astiñene zubitik Egiara doan eremuaren berrantolaketarako proiektua egiteko, Udaleko baliabideekin egin ezean, dagokion kontratazioaren prozedura martxan jar dezala sei hilabeteko epean.

Donostian, 2024ko irailaren 19an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia